

ERABAKIA, 2018ko uztailaren 6koa Euskal Herriko Unibertsitateko Gerentearena, Horren bidez, PERTSONALEKO GERENTEORDETZA Ikastetxe edo Zerbitzurako: F 150 Bulegoko burua lanpostua aldi batez eta zerbitzu betekizunetan betetzeko deialdia ebatzi da.

GERTAKARIAK

Lehenengoa.- Euskal Herriko Unibertsitateko Gerentearen 2018ko ekainaren 1eko erabakiaren bidez deialdia argitaratu zen.

Bigarrena.- Gerentearen erabakiaren bidez, 2018ko ekainaren 25ekoa, aipatutako deialdian onartutako lehiakideen behin betiko zerrenda argitaratu zen.

Hirugarrena.- Gerentzia honek deialdi honetan onartutako izangaiek adierazi eta egiaztatu dituzten merezimenduak baloratzeari ekin dio.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.- Honako arau hauek dira aplikagarri:

- Urriaren 1eko Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legea (2015eko urriaren 2an EAOn argitaratua).
- Euskal Herriko Unibertsitateko langileen lan-baldintzak arautzeko akordioa (1996ko urriaren 23ko erabakia, 1996ko azaroaren 12ko EHAAn argitaratua).
- Akordioa, 2017ko uztailaren 18koa, AZPko funtzionarioaren plangintza batzordearena, AZPko funtzionarioei zerbitzuen eginkizunak esleitzeko prozedura barematua ezartzeko buruzkoa 2017ko irailaren 28an Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak berretsia (2018ko maiatzaren 21eko EHAA).
- Deialdia egiteko UPV/EHUko gerentearen erabakia eta horrekin bat datorren gainerako araudi aplikagarri orokorra.

Bigarrena.- Gerentzia honek eskumena du erabaki hau emateko; izan ere, gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu-arloak zehazteko eta eskumenen eskuordetzeko dena hartutako 2017ko urtarrilaren 25eko errektorearen erabakiaren bidez (2017ko otsailaren 3ko EHAAn), eskuordetu zaio horretarako eskumena.

Hirugarrena.- Deialdiko lanpostua zerbitzu-betekizunen bidez hornitzeko prozedura Euskal Herriko Unibertsitateko administrazio eta zerbitzuetako pertsonala funtzionarioentzako zerbitzu betekizunak esleitzeko prozedura haztatua ezartzeko AZP Funtzionarioen Plangintza Batzordeak 2014ko uztailaren 1ean hartutako akordioa izango da. Akordio hau Gobernu Kontseiluak 2014ko uztailaren 10eko erabakiaren bidez berretsi zuen. (2014ko abuztuko 27ko EHAAn).

Laugarrena.- Aipatutako prozedurak ezartzen du hautatua izango dela merezimenduak baloratzeko zehaztutako baremazioaren arabera puntu gehien lortzen dituen izangaia eta, betiere, laugarren artikuluan adierazitako hurrenkerari jarraituko zaio hautaketa egiterakoan. Hautatutako pertsona adierazitako epean hasiko da zerbitzu betekizunen xede den lanpostuan edo eginkizunetan.

Horregatik guztiagatik, eman zaizkion eskumenak erabiliz, honako hau,

ERABAKI DU

Lehenengoa: Deialdi honetako lanpostua zerbitzu betekizunetan aldi baterako esleitzea, hautatutako funtzionarioari, erabaki honetako I. eranskinean jasota dauden baldintzetan.

Bigarrena.- Esleipena 2018ko uztailaren 9ko ondorio dataz egitea. Esleipen hori indarrean egongo da 2014ko uztailaren 1eko erabakiaren 9. artikuluan adierazitakoaren arabera.

Hirugarrena.- Erabaki hau eta dagozkion eranskinak argitaratzea UPV/EHUren webgunean Administrazio eta zerbitzuetako langileak. Hautaketa eta hornikuntza. Barne-deialdiak.

Laugarrena.- Erabaki hau jakinaraztea interesdunari, dagozkien Zerbitzuko Buruei edo Administrazioaileei, eta nominen atalari. Har beza kontuan AZPren atalak.

Bosgarrena.- Erabaki honek administrazio-bidea agortzen du eta honen kontra aukerako berraztertze errekurtsoa jar dakioko gerentzia honi, hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da administrazioarekiko auzietarako epaitegietan bi hilabeteko epean. Epe horiek erabakia lehen adierazitako moduan argitaratu eta hurrengo egunetik hasiko dira kontaktzen.

Leioan, 2018ko uztailaren 6an

Errektorearen eskumenak eskuordetuta: 2017ko urtarrilaren 25eko erabakia (2017ko otsailaren 3ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

UPV/EHUko GERENTEA

Miren Lorea Bilbao Arteche





I. ERANSKINA ZERBITZU BETEKIZUNA

2018/06/1

Esleipenduna:	ESTIBALIZ BEITIA GOICOECHEA
Lanpostuaren Izena:	Bulegoko burua
Lanaldia:	Arautua
Eref.:	F 150
Zenbatgarrena:	43
Maila:	19
Taldea:	C/D
Eskala:	Administraria/Administrari laguntzailea
H.E.:	2; 2000ko abenduaren 31
Langunea:	PERTSONALEKO GERENTEORDETZA
Campus:	BIZKAIA
BE:	
Ondorio data:	2018ko uztailaren 9a

II. ERANSKINA

PUNTUAZIOEN ZERRENDA - ZERBITZU BETEKIZUNA - 2018ko ekainaren 1eko DEIALDIA

1640		F 150		Bulegoko burua		Hor. 43		HE 2.00/12		PERTSONALEKO GERENTEORDETZA																								
ADJ	DNI	DEITURAK, Izena			ORD.	PUNT. GUZT.	ANTZIN. Urteak	EMANDAKO ZERBITZUAK GUZT. Punt.	F = Taldea		L = Taldea		F & L = Talde		EHUn ZERB.		F = Taldea		L = Taldea		F & L = Talde		BESTE ADM.		GRADUA		TITUL.		HIZK.		EUSKARA		ELKAR.	
								Hill.	Puntuak	Hill.	Puntuak	Hill.	Puntuak	Hill.	Puntuak	Hill.	Puntuak	Hill.	Puntuak	Hill.	Puntuak	Hill.	Puntuak	G	<>	Punt.	Puntos	Puntos	PL	Ptos.	Puntos			
ADJ	30601834N	BEITIA GOICOECHEA, ESTIBALIZ				18,0500	26	11,7		5,10			1	0,10	316	5,00	317	5,10							13	-3	0,5	0,75		2	0			

b) Deitutako lanpostuaren beheragoko hurrengo talde eta eskalako karreradun funtzionarioak